



ARRATOIA ETA KATUA

Materiala: Baloia handia, pilota txikia eta agindu-fitxak.

Jokatzeko era:

Taldea korruan dago, eserita edo zutik; batek pilota mugimenduan jarriko du, eskuz esku. Hirugarren edo laugarren esku aldaketan pilota mugimenduan jarri duen partaide berak baloi bat jarriko du, eskuz esku biraka. Helburua baloiak pilota harrapatzea da. Pilota eta baloia, biak batera, eskuetan dituen partaideak galduko du. Korrutik irtengo da edo agindu bat emango zaio.



Aldaera:

Zutik, jolas eginez, baloiak pilota harrapatzen duenean, biak eskuetan dituen partaidea eseri egingo da eta jolasak jarraituko du, eta pilota eta baloia lurrera erori gabe eskuz esku pasatu behar dira, baina eserita daudenek egiten duten oztopoa gaindituz. Pilota eta baloia pertsona berak jar ditzake mugimenduan, edo korruan aurrez aurre dauden bi haurrek aldi berean, bakoitzak bere eskuinekoari pasatuz.

